

BELAR – ILEAREN IPUINA

Gure herriko ile-apaintzaileak **ile-zapa** ikaragarria zuen, ile ugari eta ederra. Oso harro zegoen bere ileaz, eta sarri askotan aldatzen zuen orrazkera. Baina, egun batean, ilea erortzen hasi zitzaion, eta burusoil geratu zen. Marka eta mota guztietakoak probatu bazituen ere, ez zuen aurkitu xanpurik, ezta ilea ateratzeko loziorik, bere arazoa konponduko zionik.

–Nola liteke, ile-apaintzailea eta burusoila?! Zer pentsatuko ote dute ile-apaindegira datozen bezeroek? –esaten zion bere buruari.

Etsita, **ileorde** bat jartzeko erabakia hartu zuen, baina, hala ere, ezin zuen burutik kendu ile-apaintzaile burusoila besterik ez zela, eta oso zorigaiztokoa sentitzen zen.



Gizona egunetik egunera gero eta **goibelago** ikusita, emaztea errukitu egin zitzaion, eta pentsatu zuen:

–Ahal den guztia egin beharra dago senarrari laguntzeko!

Pentsatu eta egin. Senarra konturatu gabe, landareentzako ongarria nahasi zion haren ile-lozioari.

Oi, miraria!

Handik astebetera, ile-apaintzaileari belardi polit bat, berdeberdea, hazi zitzaion buruan.

Jendeak harrituta eta miretsita begiratzen zion kalean:

-Hori da hori ile polita!

-Bai, bai. Hain da naturala!

-Neuk ere eduki nahi nuke horrelako belar-ilea!

-Baita neuk ere...

Arrakasta handi-handia izan zuen belar-ileak, eta moda-modan jarri zen. Denek izan nahi zuten horrelako belar-adatsa! Baina, zoritxarrez, belar-ilea ez zen buru guztietan hazten; buru soil-soiletan hazten zen bakarrik. Horregatik, berezko ilea zutenek ileorde berdea jarri, edo ilea berdez tindatu beste erremediorik ez zuten izan. Ahalegin handiak eginda ere, berehala igartzen zen nork zeukan benetako belardi-burua eta nork ez, jakina, eta jendeak inbidia handia pasatzen zuen benetako belarrez apaindutako bururen bat ikustean.

Baina, ez pentsa, buruan horrelako zelaia izateak bazituen bere alde txarrak ere!



Benetako belar-iledunek kontu handiz ibili behar zuten behiekin, zaldi eta behorrek, ardiekin eta bestelako animalia belarjaleekin. Ezin ziren mendian lasai ibili eta, gainera, ez ziren zoora sartu ere egiten. Izan ere, kanguru handi batek buruko belar-ile guztia jan zion behin gizon bati, eta burusoil utzi zuen berriz.

Ursula Wölfel

28 ipuin barre egiteko (moldatua)

- Zer esan nahi du **ile-zapa** hitzak?

- a) Ile ugari eta nahasia
- b) Ile gutxi
- c) Ile bihurria

- Zer esan nahi du **ileorde** hitzak?

- a) Ordezko ilea, peluka
- b) Ile ugaria
- c) Ile bihurria

- Zer esan nahi du **goibel** hitzak?

- a) Triste
- b) Alaia
- c) Haserre

- Zer esan nahi du **ongarri** hitzak?

- a) Landareak hazteko erabiltzen den substantzia
- b) Ilea garbitzeko champu
- c) Ile bihurria

- Zer esan nahi du **adats** hitzak?

- a) Ile luzea
- b) Ile laburra
- c) Ongarria

- Nolako ilea zeukan ile-apantzaileak?

- a) Ile ugari eta ederra
- b) Ile gutxi
- c) Peluka zeukan

- Lotu esapide hauek esanahi zuzenarekin.

Burutik egon

ahaztu

Burura etorri

zoraturik egon

Burutik kendu

gogoratu

-Arazoa laguntarik gabe konpondu zen?

BAI

EZ

-Zer gertatu zitzaion egun batean?

a) Ilea erortzen hasi zitzaion

b) Ilea hazten hasi zitzaion

c) Beste peluka erosi zuen

Zerekin nahastu zuen emazteak ile-lozioa?

a) Champu-arekin

b) Ongarriarekin

c) Urarekin

